

Euskararen irakaskuntza Nafarroan

(The evolution of teaching in Basque in Navarre: a pedagogic perspective)



ALDASORO LEZEA, Eduardo

Paulino Caballero 49, 2. esk.
31004 Iruñea
ealdasoro@euskalnet.net

BIBLID [1137-1951 (2003), 11; 47-52]

Nafarroan euskarazko irakaskuntzaren arloan gertatzen ari denaren eta Euskararen Foru Legean esparru honi buruz jasotzen denaren azalpena ematen zaigu jarraian. Euskararen eta euskarazko irakaskuntza ereduen bilakaera aztertzearekin batera, etorkizunari begira zertzelada batzuk ere ematen dira.

Giltza hitzak: Nafarroa. Euskararen Foru Legea. Irakaskuntza.

El informe hace un retrato de la evolución de los modelos de enseñanza de y en euskera en las diversas etapas educativas torno al euskera que se está produciendo en la enseñanza Navarra, así como la regulación de este ámbito en la Ley Foral. Se apuntan asimismo algunas pinceladas para su futuro marco.

Palabras clave: Nueva Ley Foral del Vascuence. Enseñanza.

Ze rapport situe les profils éducatifs définis dans la Loi du Basque en Navarre. On signale ainsi le cadre légal et le développement normatif de la Loi. On analyse les données d'évolution des modèles d'enseignement de et en euskera au cours des diverses étapes éducatives et on signale quelques traits sur l'avenir.

Mots clés: Navarre. Loi du Basque. Enseignement.

1. Euskararen Foru Legea eta beste arauak

Euskararen Foru Legea izan zen Estatu mailan onartu zen hizkuntzari buruzko azken legea (1986). Lege horrek bereizten dituen zonaldeak kontuan izanik, eremu euskaldunear nafarren %10 bizi da, eremu mistoan %55, eta eremu ez-euskaldunear %35, eta horrek asko mugatzen du Legeak eta Foru Dekretuek egiten duten lege garapena. Euskaldunen kopurua kontuan hartuz, %47 bizi da eremu euskaldunear, eta beste %47 eskualde mistoan. Horrek esan nahi du eremu mistoan eremu euskaldunear adina euskaldun bizi direla.

Lege horretan irakaskuntzak betetzen duen lekua oso nabarmena da. Hala ere, Legeak orokorrean ahalmentzen du Nafarroako Gobernuia euskal irakaskuntzari dagozkion arauak aldarrikatzeko, arau horien edukiak zein izan behar duen gainetik ere adierazi gabe.

Irakaskuntzari buruzko lege garapena 1988 urtean etorri zen, hainbat foru dekretuen bitartez. Lehena, 159/1988 Foru Dekretua, irakaskuntza ez-unibertsitarioaz aritu zen; 160.a, berriz, euskara eskatzen den irakaskuntza-postuei eta horietara nola sartu behar denari buruz; 161. Dekretua, helduen irakaskuntzarako zentro publiko eta pribatuei buruz, eta 162.a irakasleen birziklapenaz. Horretaz gain, akordio bat sinatu zen Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin Legearen aplikazioa errazteko; izan ere, Nafarroak ez zuen hezkuntza eskumenik jaso 1990. urtera arte. Aipaturiko Dekretuak garatzeko, foru aginduak etorri ziren ondoren.

2. Irakaskuntza-ereduak, neurketak eta emaitzak

1988an Euskararen Foru Legearen garapenerako foru dekretuak egin zirenean, Legea onartu zenetik bi urtera, nahiko informazio zegoen hizkuntza ereduari buruz; Kanadan eta Katalunian egindako lanak, besteak beste. Nafarroan -eta Euskal Autonomia Erkidegoan- gehienbat kontuan hartu genituen teoriak Jim Cummins-enak izan ziren¹. Berak adierazi zuen hizkuntza guztiek, desberdinak izan arren, azpiko kompetentzia komuna dutela (*Common Underlying Proficiency-CUP*), hizkuntzak familia berekoak izan edo ez izan. Hori inportantea da, elebitasunaren aldeko argudio sendoa ematen digulako, euskararen kontrakoek hainbat argudio

eta eztabaida piztu baitituzte historian zehar euskararen kontra.

Cumminsek dio ama hizkuntzan nolabaiteko maila izan behar dela, hortik abiatuta bigarren hizkuntzara eta elebitasunera heltzeko. "Atariko maila bikoitza"-ren hipotesiaren arabera, bigarren hizkuntza ikasteak efektu negatiborik izan ez dezan, ikasleak atariko maila jakin bat izan behar du ama hizkuntzan.

Bestalde, Cumminsek eta beste zenbait autorek bereizi egiten dute pertsonen arteko komunikaziorako oinarrizko trebezia (*Basic Interpersonal Communicative Skills-BICS*) eta hizkuntzaren alderdi kognitibo-akademikoez jabetzeko trebezia (*Cognitive Academic Language Proficiency-CALP*). Hizkuntza erregistroen diferentziak, batez ere, pertsonen arteko oinarrizko komunikaziorako trebeziaren eta hizkuntzaren edukiak ikasteko gaitasunaren artekoak dira. Pertsonen arteko komunikazio trebezia izango litzateke hizkuntza informala, lehenengo mailetan ematen dena; hortik aurrera, hizkuntzaren garapenak eta umeen adimenaren garapenak aurrera egiten duen heinean, eskoletan erabiltzen den diskurtsoak pedagogikoa izan behar du, kognitibo eta abstraktoa. Euskarari dagokionez, konturatu gara ume horiek erreferentzia gutxi dituztela oinarrizko hizkuntza ez-formalean edo informalean, zeinaren gainean eraikitzen den maila akademiko-kognitiboa, eta hortik euskararen ezagupenean eta erabileran dugun problema larri bat dator.

Nafarroako hizkuntza ereduak, esandako teoretatik abiatuta definitu ziren. Hona ereduak:

A eredua, non euskara soilik ikasgaia baitzen.

B eredua, Nafarroako hizkuntzen ereduaren diseinuan berezitasun nabarmen bat duena, printzipioz ez baitzegoen eredu bezala definitua. Parlamentuko debatean norbaitek erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoan B eredu baldin bazegoen, hemen ere izan behar zela. Baina gure B eredu ez da EAEn dagoena, ez da erdia euskaraz eta erdia erdaraz, baizik eta nagusiki euskaraz; izan ere, gure kasuan ikasle euskaldunei begira pentsatuta zegoen. Horrek, zenbait herritan, inguru oso euskalduna dagoen herrietan, gaztelaniaz ikasgai bat edo bi emateko aukera eskaintzen zuen. Hedapen txikia izan du, logikoa denez.

Eta, azkenik, **D eredu**a, euskarazko irakaskuntzaren eredu klasikoa da. Eredu

1. CUMMINS, Jim. *Inmersion education for the millennium: what we have learned from 30 years of research on second language immersion*, Toronto: Ontario ISE, 2002.

horretan bi modu daude: murgiltzekoa -familia edo giro erdalduna dutenendako; hots, zonalde mistoan dauden umeendako gehienbat-, edo euskaldunak diren umeendakoa.

Ez dira neurketa asko egin erodei buruz. Baziren batzuk Nafarroan: Pakita Zabaletak egin zuen bat 1986an, Goikoetxeak irakurketa-idazketa aztertu zuen 94an, Etxaguek zenbait eredu publiko eta pribatu konparatu zituen 97an, eta azken urte hauetan Hezkuntza Departamentuaren enkarguz INCEk zenbait neurketa egin ditu, nahiko eztabaidagarriak izan direnak. Orokorrean ikusi duguna da eredu batzuren eta besteen arteko errendimenduetan eta hizkuntzen ezagupenean ez dagoela diferentzia handirik. Gaztelaniaren ezaguerari dagokionez, frogatu da euskaraz ikasten duten ikasleek gaztelania ere menperatzen dutela. Badira diferentzia batzuk, baina ez dira estatistikoki esanguratsuak, nahiz eta konturatu garen zenbait tokitan eta ingurutan gaztelaniazko erabilera formala landu behar dela espresuki. Zenbait ikastetxetan gehigarri bereziak ere eman dira horretarako. Euskararen ezagupenari dagokionez, aldiz, diferentzia nabarmena dago eredu artean. D ereduari ari diren ikasleek maila kognitibo nahikoa lortzen dute, baina ez beste eredu artean daudenek.

Gaur egun beste polemika bat daukagu: atzerriko hizkuntza indarra hartzen ari da irakaskuntzan; ingelesa kasu gehienetan. Planteatzen den arazoa da noraino sar daitekeen hirugarren hizkuntza bat D ereduari. Aditu batzuen iritziz, lehenengo mailatan jardueren %75 izan behar dute euskaraz eredu hau bermatzeko, eta, goiko mailatan, gutxienez %65. Horrek esan nahi du benetako elebitasuna lortu nahi bada, ezin dela eredu orekatu bat izan, batzuek planteatzen duten bezala, esanez elebitasuna bultzatzeko euskara eta erdara hein berean bultzatu behar direla. Hauek datu teknikoak dira, ez politikoak.

Ereduen eboluzioan datu batzuk eman nahi ditut, oso orokorrak eta ez zehatzak. Euskararen irakaskuntzak 2000-2001 ikasturtean jo zuen gailurra. Ikasturte horretan, 3 urtetakoen %30,7 D ereduari matrikulatu ziren; A ereduari %28,5 eta G ereduari %40,6. Eta esaten dut gailurra jo zuela, hurrengo bi ikasturteetan datu hauek behera egin zutelako, proportzio txiki batean, baina behera. D ereduari matrikulazio absolutuak mantendu egin dira, baina proportzioa jaitsi egin da, ziur aski G ereduari matrikulatu diren ikasleek gehiago izan direlako, edo besteak beste etorkinek ere beren eragina izan dutelako. Jaitsiera A ereduari nabaritu da batez ere, bai datu absolutuetan eta bai portzentajeetan. Halere, jaitsiera hori %3 izan da gutxi gorabehera.

Etapen arabera, diferentzia handiak daude eredu banaketan. Haur eta Lehen Hezkuntzan ematen da D eta A eredu matrikulazio proportzio handiena, baina proportzio hori nabarmenki jaisten da DBHn. Adibidez, D ereduari Haur eta Lehen Hezkuntzan %25 ditugu kasik, eta DBHn %18ra jaisten da. Batxilergoan %15ekoa da.

Lanbide heziketan, ordea, ez dago D eredurik, eta hori intentzio politikoarekin egin dago. Lanbide edo ziklo formatibo berriak egin zirenean, Administrazioaren asmoa irakaskuntza guztia gaztelania hutsean ematea izan zen.

Sareen arabera ere, diferentzia nabarmenak daude: sare publikoan eskolatzen da euskaraz D, B eta A ereduari ikasle gehiengoa. D eta B ereduari ikasten duten ikasleentatik %75 sare publikoan daude, eta A ereduari ikasten dutenetatik %80. Ikastolen sareak mantendu egin du bere matrikula, igoera txiki batekin, eta hor D ereduko lau ikasle bat eskolatzen dira. Ikastetxe pribatu edo konfesionaletan apustu txikia egin dute eredu honetan. Ez dago D eredurik. B ereduari bakarrik dago eremu euskaldunean, eta eremu mistoan ikastetxe batzuek A ereduaren alde egin dute, baina oraingoz G ereduari da nagusi ikastetxe konfesionaletan.

Bestetik, aipagarria da irakasleen formakuntza. Garai batean berzikipena zen irakasle euskaldunak lortzeko iturri nagusietako bat, baina gaur egun ez da horrenbeste. Metodologian eman den eboluzioa ere aipatzekoa da: azken ikasturte hauetan, ikuspegi estrukturalista edo gramatikalista batetik ikuspegi funtzional eta diskurtsibora igaro gara.

Helduen irakaskuntzari buruz, eman den progresioa aipatu behar da. 1986an irakaskuntza pribatua izan zen nagusi helduen irakaskuntza eskaintzen, eta 1997. ikasturtean inflexio puntu batera heldu zen. Geroztik matrikulak nabarmen egin du behera sare pribatuan. Irakaskuntza publikoan, berriz, kontrako bidea egin da: hasieran, euskaltegi eta ikastetxe berriak sortu ziren, funtzionarioen euskaltegia, unibertsitatekoa, hizkuntza eskola berriak, etab., matrikulazio urriarekin, eta 1999. ikasturtean gailurra jo zuten; halere, geroztik nabarmen jaisten ari da matrikula.

Bestetik, EGAK garrantzia izan du sistemaren erregulazioan. 1985ean hartu zuen euskara frogari Nafarroako Gobernuak bere esku, lehen Euskaltzaindiak ematen zuelako, eta 1985etik 2000ra 1.772 titulu eman dira Nafarroan.

Gizarte ekimena funtsezkoa izan da euskararen prozesu honetan. Beti egon da

Administrazioaren aurrean eta Administrazioari neurriak eskatzen. Aipatzekoak dira, halere, Administrazioan hartu diren zenbait programa edo neurri.

Unibertsitateari dagokionez, bi datu bakarrik emango ditut, panorama ikus dadin: Nafarroako Unibertsitate Publikoan 1999-2000 ikasturtean ematen ziren 3.965 kredituetatik 208 ematen ziren euskaraz, eta hurrengo ikasturtean kopuru hori 61 kreditutara jaitsi zen, Magisteritzako espezialitateak aparte utzita, gehienbat euskaraz ematen direlako. Orain hilabete batzuk, Ostatz elkarteak salatu zuen Nafarroan 1.200 unibertsitate-ikaslek kanpora joan behar zutela, aukeratzeko zuten karrerarik ez zutelako euskaraz Nafarroan.

3. Azterketa eta etorkizuneko arazoak

Zenbait gogoeta egin nahiko nituzke orain garrantzitsuak iruditzen zaizkidan arazoei buruz. Alde batetik, legezko markoan eta Administrazioaren joeran ikusten dut Legeak finkaturiko eskualdeek nolabaiteko diskriminazio bat markatu zutela, gehienbat eremu ez-euskaldunean, bertako irakaskuntza publikoan eta ikastoletan ez baita euskaraz ikasteko eskubidea bermatzen. Irakaskuntza publikoan, aukerarik ez omen dagoelako -hau eztabaidagarria da, espezialista batzuek baitiez baitiote-. Arauek aukera ematen dute borondate falta dagoenean euskarazko irakaskuntza publikorik ez garatzeko. Eta irakaskuntza pribatuari dagokionez, diskriminazioa jasan dute eremu honetako ikastola gehienek, oraingoz legezatu gabe daudelako.

Bestetik, legezko markoak diskrezio handiegia ahalitzen du nire ustez. Ez da nahikoa bermatzen euskaraz ikasteko eskubidea; ez dira baldintzak finkatzen. Adibidez, ez da argi agertzen zenbat ikasle behar diren lerro bat osatzeko, desdobleak egiteko, ze plantila izan behar diren edo ze errefortzu behar diren horrelako programa batean... Euskarazko irakaskuntzari gatazka edo arazo kutsua eman nahi zaio, jendea uxatzeko.

Bestetik, Administrazioaren inplikazioa txikia izan da. Garai batean aldeko informazioa eman bazen ere, gero bertan behera utzi zen politika hori. Halere, ekimen hori oso garrantzitsua zen. Adibide gisa, Alli presidente zela euskararen aldeko kanpaina egin zuen urtean, D eredia %5 igo zen urte bakar batean. Orduetik, ez da eragotzi zenbait programa martxan jartzea, baina ez da inolako publizitate edo aldeko sustapenik egin.

Edonola ere, denbora honetan ereduak mantentzea oso positiboa izan da. Gure egoera sozio-politikoa ikusiaz, aurreikusenezina zen zein norabide hartu ahal zuten ereduak aldaketek -ziurrenik txarrera egiteko izango ziren-. Hala ere, garbi dago gaur egun eredu horiek egokitu beharra dagoela, hizkuntza ikastearen helburua aldatzen ari delako. Eredu horiek pixka bat malguagoak izan behar dira egun. Beldurra ematen du, ordea, aldaketa horrek. Nire ustez, ikastetxeen autonomia errespetatu egin beharko litzateke, eta ikastetxe bakoitzak finkatu beharko litzuke bere hizkuntza plangintza eta helburuak.

Pedagogiaren arloan, ereduaren garapena positiboa izan da. Sistemak atzera jotzearen beldur izan gara bi ikasturtetan, baina atzerakada hori ez da nabaria izan. Esan daiteke une konkretu honetan geldione batean gaudela: D ereduaren kopuru absolutua mantentzen da, baina A ereduaren ez da horrela gertatzen. Nabaritzen hasia da atzerapen txiki bat. Nire ustez, oso balore positiboak izan dira irakasleen lana -beste herrialdekoekin konparatuta, ez dira gehiegi funtzionarizatu eta parte aktiboa hartzen dute proiektuetan-, eta metodologian egin den aurrerapena.

Halere, eredu bakoitzean badira arazo espezifiko batzuk. Adibidez, selektibitateak ito egiten du A eredia. Ikusten ari gara kopuru esanguratsua matrikulatzen dela eredu horretan lehenengo mailatan; aldiz, DBHn eta Batxilergoan utzi egiten dute. Zergatik? Selektibitatean eskatzen den euskara maila neurtzeko estandarra euskal eskualdeko ikasleria delako, metodologia tradizionalista edo gramatikala. Jendeak beldur ikaragarria die selektibitateari eta euskarazko frogari. Hori dela-eta, DBHra edo Batxilergora pasatzen direnean uko egiten diote hizkuntzari.

Hizkuntzen irakaskuntzan mamu handi batzuk gainditu ditugu. Hasieran esaten ziguten elebitasuna ez zela posible; ikusi dugu posible dela, eta gainera onura handiak ekartzen dituela. Esaten ziguten gaztelaniaren galera etorriko zela; ikusi dugu ez dela horrela izan. Errendimendu diferentiek emango omen ziren ereduari, eta ikusi dugu ez dela horrela izan. Esaten ziguten erdiko klaseendako ereduak zirela; hori ere ez da horrela gertatu, neurriak hartuta edonork ikasi ahal baitu euskaraz. Egun beste gauza batzuk leporatzen dizkigute: hor ditugu emigrazioa, eleaniztasuna, etab. Nire ustez, eleaniztasuna onartua dago gure ikastetxeetan, orain helburuak definitu behar ditugu. Hizkuntza guztiek ezin dute estatus bera izan eskolan: euskara eta gaztelania maila kognitibo-akademikoan landu behar ditugu, hemengo hizkuntza propioak direlako, baina ingelesa ez dugu landuko maila kognitibo-akademikoan, baizik eta hizkuntza instrumentala izango da. Gure lanak izan

behar du ingelesez ze erabilpen eta erregistro landu nahi ditugun definitzea.

Duela gutxi arte uste zen elebidunak garenok bi elebakarren gehikuntza izan behar genuela. Nolabait, beti neurtu izan dute gure hizkuntza konpetentzia euskaldunekin eta erdaldunekin. Baina elebiduna izateak ez du suposatzen funtzio eta erregistro guztiak bi hizkuntzetan landu behar direnik. Horrela, ingelesa ere gehitzen dugunean, edonork ulertzen du gure ingelesa ezin dela Ingalaterran hitz egiten den ingelesarekin konparatu. Gure gaztelania ere ezin da Gaztelan hitz egiten denarekin alderatu, ez eta gure euskara euskaldun peto-peto direnek erabiltzen dutenarekin.

Denbora luzea izan dugu euskararen irakaskuntzan zein helburu lortu nahi genituen definitzeko, eta ikusi dugu eskolak bermatu egiten duela nolabait ezagupena. Baina eskolan lantzen duguna diskurtso pedagogikoa da, diskurtso akademikoa, eta konturatu gara goi mailetan hizkuntza informala ere landu behar dugula. Nolanahi ere, hemen beste eztabaida bat sortzen da: eskolak hizkuntza ez-formala bermatu behar al du? Lagunartean egiten den hizkuntza ere eskolaren lana al da? Hein batean izango da, baina ezin da arlo eta modu guztietara zabaldu. Gizartearen laguntza ere behar da. Eta erabileran ere gauza bera gertatzen zaigu: ezin diogu eskolari utzi euskararen erabilera bermatzeko ardura osoa. Eta hori esaten dut gure buruari iruzur egin diogulako denbora luzez. Gure helburua umeak elebidunak izatea zen, eta bigarren maila batean zegoen euskara erabiltzen zuten edo ez neurtzea. Nik uste dut helburu oso diferenteak direla, eta ongi neurtu behar dugula zer ematen ari garen eta zer emaitza espero ahal dugun horretaz. Gaztelanian ere ikusi dugu elebidun garen aldetik ez diegula gure ikasleei gaztelania erakutsi behar, baizik eta erregistro formalagoak edo ezagutzen ez dutena. Horretan ere, pedagogian nolabaiteko espezializazioa egon da.

Amaitzeko, uste dut irakaskuntza ez-unibertsitarioa nolabait bermatua badugu, arazoa beste bi muturretan gertatzen ari dela: 0-3 zikloan euskara ez da kontuan hartzen, eta zer esanik ez lanbide heziketan, hor Administrazioaren politika interesatu bat egon baita, eta noski, unibertsitatean. Irakaskuntza ertainean uzten badugu euskara, ez ote gara asimilazio eredu bat bultzatzen ari? Alegia, esaten ari gara euskarak balio duela, baina adin konkretu batzuetarako bakarrik: ez afektibitatea garatzen den garaian, hasieran, eta ez lana edo ikasketa serioak landu behar direnean. Hori oso kezagarria da. Nik uste

dut bermatu egin behar dela maila horietan ere euskera erabiltzea.

Bestetik, sare konfesionalaren inplikazioa behar da. Ez da normala sare honetan konpromisorik ez izatea.

Eta, azkenik, helduen irakaskuntza, gure ahaide txiroa da. Horretan azterketa sakon bat beharko da; nire ustez sektorearen birmoldaketa behar da, alde batetik teknologia berriak sartu behar dira, eta bestetik behar berriei ere erantzun behar zaie. Eta sektore honek bai behar duela Administrazioaren laguntza, beti ahaztua egon delako.